

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## **UDAL GIZARTE ZERBITZUETAKO PSIKOLOGO KOMUNITARIOEI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Psikologo komunitarioek Haurren eta Familien Prebentzio Zerbitzuan egiten dute lan. Lantaldea Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan banatuta dago, familiei arreta emateko bulegoa dute Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan eta Gizarte Ekintzako gainerako profesionalekin batera lan egiten dute. Gaur egun, HZ Gizekimenak enpresak kudeatzen du zerbitzua Udalak azpikontratatuta. 2022ko Gizarte Ekintzaren memoriako datuak kontuan izanda, 760 adingabe atenditu ziren iaz programa honetan.

Hogei urtean lan eredu jakin bat mantendu ostean, 2018ko ekainaz geroztik, Psikologo Komunitarioen taldeko hainbat profesional larriagoak ziren kasuak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak) artatzen hasi ziren plan pilotu gisa eta, 2021etik, kasu larri guztiak artatzen hasi ziren. Profesionalen hitzetan, horrek eragin handia izan du familietan eta langileengan. Hau da, ordura arte kasu arin eta moderatuen arduradun zen taldeak bere gain hartu zituen kasu larriak, eta, beraz, lan karga nabarmen handitu da. Bestetik, kasu larrien konplexutasuna eta lehentasunezko dedikazioa direla eta, lehen gainerako familiei ematen zitzairen arreta asko murriztu da.

Lan baldintzen gorabeherak direla eta, profesionalak elkarrizketa bide bat irekitzea eskatu zioten enpresari, baina horrek uko egin ondoren, zazpi langilek prozesu judicial bat hasi zuten 2021ean, eta Udala zein enpresa salatu zituzten langileak legez kanpo lagatzeagatik.

2023ko urriaren 27an Langile Batzordeak ezagutararazi duen bezala, auzitegiak Udala langileen legez kanpoko lagapena egiten ari zela aitortu du (orain arte bost profesionalari), eta, gainera, adierazi du artatutako familien gaineko erantzukizuna eta erabakiak administrazioko langileek egin behar dituztela, eta ezin dituztela azpikontratutako enpresek gauzatu. Horregatik, epaiak Udalarik eskatu dio salataileak langile publikoen baldintza eta eskubide berberekin kontrata ditzala. Horren aurrean, gobernu taldeak Auzitegi Gorenera jotzea erabaki du errekurtsio bat aurkeztuz eta erantzunaren zain dago.

Azaroko batzordeetan gaiaren inguruan Udal Gobernuak interpelatu dugunean, ardura duen delegatuak adierazi digu ez daudela ados hasierako sententziarekin eta errekurtsioaren inguruko epaiaren zain daudela. Ez du azalpenik eman, ordea, psikologoko komunitarioekin bilerarik ez egitearen inguruan.

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

**KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari psikologo komunitarioen inguruan Auzitegi Gorenari aurkeztutako errekurtsua erretiratu dezala eta EAEko Auzitegi Nagusiak emandako sententzia bete dezala.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**